



1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

564/2022 Foru Agindua, abenduaren 5ekoa, zeinaren bidez onartzen baita 587 eredia – Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa–, zehazten baitira hura aurkezteko modua eta prozedurak nahiz zergaren itzulketa eskatzeko modua eta prozedura eta arautzen baitira berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroko inskripzioa eta izakinen kontabilitatea eramatea.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak arautu egiten du berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren ituna. Era berean, zerga itundua dela ezartzen du, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berberen arabera erregulatuko dena. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen eta ordainketa ereduak onartu ahal izango dituzte. Eredu horietan gutxienez lurralde erkideko datu berberak agertuko dira, eta likidazio aldi bakoitzerako ordainketa epeak ezarriko dira, baina azken horiek funtsean ezin dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Kontuan hartuta aipatutako itunaren bigarren xedapen gehigarriak eta Ingurumen fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri eta beste tributu eta finantza neurri batzuk onartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legeak, xedatutzen dutena, maiatzaren 14ko 308/2014 Foru Aginduaren bidez 587 eredia –Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa– onartu zen, eta hura aurkezteko modua eta prozedurak ezarri ziren.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea aldatzen duen uztailaren 8ko 14/2022 Legearen bidez, urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikulua aldatzen da, betiere kontratazio publikoan mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) estatistikak arautzeko asmoz.

Zergaren xede diren gasak hidrofluorokarburoak, perfluorokarburoak eta sufre hexafluoruroa dira, eta haiek berotegi efektuko gas fluordunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 16ko 517/2014/EB Erregelamenduaren I. eranskinean zerrendatuta daude. Aipatutako gasak eta haiek dituzten nahasteak eremu objektiboaren parte dira. Aldaketaren ondorioz, zergapeko egitatea izango da Europar Batasunaren barruan zergaren eremu objektiboa osatzen duten gasak fabrikatzea, inportatzea edo eskuratzea; eta, era berean, zergadunak Europar Batasunaren barruko fabrikatzaileak, inportatzaileak edo eskuratzaileak izango dira, hurrenez hurren. Halaber, zergapeko egitatea da aipatutako gasak Espainiako lurraldean modu irregularrean edukitzea, eta gas horiek dauzkatenak, merkaturatzen dituztenak, garraiatzen dituztenak edo erabiltzen dituztenak dira zergadunak.

Zergaren sortzapena, fabrikazioaren kasuan, gas fabrikatuak erabiltzean edo Espainiako lurraldean entregatzean edo eskuragarri jartzean gertatzen da, edo kobratzean, ordainketa aurrerratuak egiten badira. Inportazioan, inportazio eskubideak sortzen diren unean gertatzen da sortzapena, eta batasun

barruko eskurapenean, berriz, garraioa edo igorpena hasi eta ondorengo hilaren 15ean edo faktura egiten den egunean, lehenagokoa bada.

Gainera, biltegizainaren figura arautzen da. Horrek aukera emango du zergaren sortzapena gas biltegitatuak izaera hori ez duenari entregatu edo eskura jartzen zaizkion unera edo haiek erabiltzen diren unera geroratzeko.

Zergaren kuota zerga oinarriari (kilogramotan adierazita) zerga tasa bat aplikatzearen emaitza da. Zerga tasa hori, era berean, zergaren xede diren gas edo nahasteen atmosfera berotzeko potentzialari 0,015 koefizientea aplikatzearen emaitza da, kilogramoko 100 euroko mugarekin. Zerga tasa hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Berotegi efektuko gas fluordunei buruzko apirilaren 16ko 517/2014/EB Erregelamenduaren I. eranskinean xedatutakoa da.

Bestetik, zergaren xede diren gasek atmosfera berotzeko potentziala 150 edo txikiagoa duten kasuetarako edo Espainiako lurraldetik kanpo bidaltzen direnetarako, zergapetuta ez dauden kasuak arautzen dira. Era berean, ez dira zergapetuko, salbuetsita daudelako, beren transformazio kimikorako lehengai gisa erabiltzen diren gasak, baldin eta gas horien osaera erabat aldatzen duen prozesu batean erabiltzen badira; ez dira zergapetuko, halaber, ondoko gasak: beraiek suntsitzeko merkaturatzen direnak, ekipamendu militarretan erabiltzen direnak, bidaiarien ekipaje pertsonala osatzen dutenak, nazioarteko itsasoko edo aireko nabigaziorako erabiltzen direnak, edo sistema elektrikoak fabrikatzeko edo osagai farmazeutikoak hornitzeko inhalagailu dosifikatzaileetan erabiltzen direnak. Azken bi salbuespen horiek iragankorrak dira.

Aipatutako aldaketek eskatzen dute 587 eredu berri bat onartzea, hura aurkezteko prozedurarekin eta epeekin batera, bai eta zerga itzultzeko modua eta prozedura eta zergaren eremu objektiboan sartutako gasen kontabilitatea eramateko obligazioa betetzeko prozedura eta epeak ere.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 587 eredua onartzea.

587 eredua onartzen da, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa», zeina foru agindu honen I. eranskinean jasota dagoen.

2. artikulua. 587 eredua aurkeztera behartuak eta epeak.

1. Zergaren xede diren gasak fabrikatzen dituztenek edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen dituztenek eta gas fluordunen biltegizainek 587 eredua aurkeztu behar dute, eta haren ondoriozko zerga zorraren zenbatekoa ordaindu. Inportazioetan, aduana zorrerako jasotako moduan likidatuko da zerga, aduana araudian xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko apartatuan xedatutako betebeharretik salbuetsita daude Europar Batasunaren barruan zergaren xede diren gasak eskuratzen dituztenak, ordaindu beharreko kuotarik ez den likidazio aldietan.

3. Likidazio aldia bukatu eta ondorengo hilabetearen 1etik 25era bitartean aurkeztuko da 587 eredua, eta, hala badagokio, zerga zorra ordainduko da. Ondorio horietarako, likidazio aldia hiru hileko naturalarekin bat etorriko da. Hala ere, urte bakoitzeko azken hiru hilekoari dagokion eredua aurkeztu eta, hala badagokio, ordaintzeko epea hurrengo urteko urtarrilaren 31n amaituko da.

4. Urte naturaleko azken likidazio aldian sortutako kuoten zenbatekoa gainditzen duten kenkari zenbatekoak dituzten zergadunek, Ingurumen arloko fiskalitatearen arloko zenbait neurri ezarri eta beste zerga eta finantza neurri batzuk hartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikuluko hamabost apartatuaren 3. zenbakian jasotakoaren arabera, beren alde dagoen saldoa itzultzeko eskatu

ahal izango dute likidazio aldi horri dagokion 587 eredua aurkeztuz.

3. artikulua. Ordaindutako zergaren zenbatekoaren itzulketa eskatzeko ahalmenak eta epeak.

1. Urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikulua hamabost apartatuaren 1. zenbakian aipatutako inportatzaileek eta eskuratzaileek ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango dute.

2. Itzultzeko eskaera Zergabidea plataformako idazkien atalaren bidez egin beharko da (ondorengo artikuluan aipatuko da), eta harekin batera aurkeztu beharko dira urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikuluko hamabost apartatuaren 1. zenbakian deskribatutako egitateak izan direla eta itzultzeko eskatzen den zerga ordaindu dela frogatzen duten egiaztagiria.

3. Itzultzeko eskaera eragin duten gertakariak izan diren hiruhilekoa amaitu eta ondorengo hilaren 1etik 25era bitartean egin beharko da eskaera. Hala ere, urte bakoitzeko azken hiruhilekoari dagokion eskaera aurkezteko epea hurrengo urteko urtarrilaren 31n amaituko da.

4. artikulua. 587 eredua eta ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzeko eskaera aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura.

1. 587 eredua eta ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzeko eskaera internet bidez aurkeztuko da nahitaez, Zergabidea plataformatik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Zerga Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez egiteko betebeharra arautzen duen ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduaren arabera. Aurkeztu beharreko eredua prestatzeko, Zergabidea plataformak berak eskatutako datuak bete beharko dira.

Zergabidea plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Era berean, plataforma horretara Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik edo Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik sartu ahal izango da.

2. 587 eredua aurkezteko eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzeko betebeharra zergapekoek beren jarduera egiteko erabiltzen duten establezimendu bakoitzak bete beharko du.

Batasun barruko eskuratzaileen kasuan, 587 eredua aurkezteko eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzeko betebeharra zerga administrazio honen aurrean bete beharko da, zerga egoitza lurralde horretan dagoenean.

5. artikulua. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatzea.

1. Abuztuaren 30eko 712/2022 Errege Dekretuak onartutako Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren Erregelamenduan jasotako baldintzetan, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatzeko eskatu beharko dute zergadunek eta zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden zergadunen ordezkariak, zerga horrekin dituzten betebeharrei dagokienez Zerga Administrazioaren aurrean ordezkatu ditzaten.

2. Aurreko apartatuan xedatutako inskripzio betebeharretik salbuetsita daude operadore ekonomikoak ez diren inportatzaileak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 9ko 952/2013/EB Erregelamenduaren 55 artikulua 5. zenbakian jasotako definizioaren arabera. Erregelamendu horren bidez Batasuneko Aduana Kodea ezarri zen.

3. Oro har, aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera lurralde erregistroan inskribatu behar diren pertsonak edo entitateak alta emanda egon beharko dute enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, egin beharreko jarduerari dagokion epigrafean, eta eskaera bat aurkeztu beharko dute Ogasun eta Finantza Departamentuan, honako hauek jasoko dituen:

a) Eskatzailearen izen-deiturak edo sozietate izena, helbide fiskala eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta, hala dagokionean, ordezkariarenak, ordezkaritza hori frogatzen duen dokumentazioarekin batera.

b) Non dagoen kokatua jarduera egiteko erabiltzen duen establezimendua. Adierazi behar dira helbidea (hala badagokio, partzela zenbakia), herria eta instalazioak edozein tituluren bidez edukitzeko eskubidearen ziurtagiria.

Inskripzio eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Zerga honen xede diren produktueterako gaitasuna egiaztatzen duten agiriak, exigigarriak badira.

b) Gas fluordunen biltegizainen kasuan, Zerga Administrazioak edo kudeaketa bulegoak zergaren xede diren gasak zerga arautzen duen urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikuluko bederatzi.4 apartatuan jasotako araubidea aplikatuta eskuratzeko eman duen baimena.

c) Inportatzaileei dagokienez, F-GASen aldez aurreko baimena eskatuko da inportatzaileari exigigarria zaion kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 16ko 517/2014/EB Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

4. Erregistroan inskribatzeko eskaera elektronikoki egin beharko da jarduera hasi aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabilita.

5. Eskaera jaso eta behar den espedientea tramitatu ondoren, kudeaketa bulegoak erabakiko du, hala badagokio, zergaren erregistroan inskribatzea.

Inskripzioaren erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, harekin batera, inskripzioa egiaztatzen duen txartela igorriko zaio (hartan gas fluordunak identifikatzeko GFJ kodea agertuko da).

6. artikulua. Berotegi efektuko gas fluordunak identifikatzeko kodea.

1. Berotegi efektuko gas fluordunen identifikazio kodearekin (GFJ) identifikatzen dira, zergak ordaintzeari begira, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatutakoak.

2. Kodeak 13 karaktere izango ditu, erregelamenduz xedatutakoaren arabera banatuak.

3. Zergapekoek jarduera adina GFJ izan beharko dituzte eta, hala badagokio, beren jarduera egiteko erabilitako establezimendu adina. Salbuetsita daude inportatzaileak eta zergaren xede diren gasen batasun barruko eskurapenak egiten dituztenak; haiek GFJ kode bakarra izan beharko dute jarduera bakoitzeko.

4. Zergadunek erregistroan inskribatzea eskatu beharko dute, eta, hala badagokio, autolikidazioa aurkeztu beharko dute lurraldearen arabera eskuduna den zerga administrazioan.

5. Erregelamendu bidez jasotako moduan, lurralde erregistroan inskribatutako pertsonak edo entitateak egiten duen jardueraren identifikazio ezaugarriak honako hauek dira:

G1: Gas fluordunen fabrikatzailea.

G1: Gas fluordunen batasun barruko eskuratzaila.

G3: Gas fluordunen inportatzailea.

G4: Gas fluordunen biltegizaina.

G5: Espainiako lurraldean finkatu gabeko berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren zergadunaren ordezkaria.

7. artikulua. Kontabilitate betebeharrak.

1. Zergaren xede diren gasak fabrikatzen dituztenek edo Europar Batasunaren barnean eskuratzen dituztenek, bai eta gas fluordunak biltegitratzen dituztenek ere, zergaren xede diren produktuen kontabilitatea eraman beharko dute, foru agindu honen II. eranskinean jasotako edukiaren arabera.
2. Zergaren xede diren gasen batasun barruko eskurapenak egiten dituztenek ez dute kontabilitaterik eraman beharko batasun barruko eskurapenak ez egiteagatik ordaindu beharreko kuotarik ez den likidazio aldietan.
3. Fabrikatzaileek, batasun barruko eskuratzaileek eta biltegizainek kontabilitatea dagokion likidazio aldiaren ondorengo hilabetearen 1etik 25era bitartean aurkeztu beharko dute kontabilitatea, elektronikoki, aurreko 4. artikuluan aipatutako Zergabidea plataformaren idazkien atala erabilita. Hala ere, urte bakoitzeko azken hiruhilekoari dagokion kontabilitatea aurkezteko epea hurrengo urteko urtarilaren 31n amaituko da.
4. Inportatzaileak artikulua honetan xedatutako kontabilitate betebeharretatik salbuetsita daude.

Lehen xedapen iragankorra. 2022ko hirugarren hiruhilekoari dagokion autolikidazioa.

2022ko hirugarren hiruhilekoari dagokion autolikidazioa 2022ko laugarren hiru hilabeteke autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko da.

Bigarren xedapen iragankorra. 2022ko hirugarren hiruhilekoari dagokion izakinen kontabilitatea.

2022ko hirugarren hiruhilekoari dagokion kontabilitatea 2022ko azken hiru hilabeteke kontabilitatea aurkezteko jarritako epearen barruan aurkeztu behar da, Foru Agindu honetako 7. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru agindu honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak eta, bereziki, maiatzaren 14ko 308/2014 Foru Agindua, 583 eredua –Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Autolikidazioa eta ordainketazatikatuak– eta 584 eredua –Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa eta ordainketa zatikatuak– onartu eta haiek aurkezteko erak eta prozedurak arautzen dituenak.

Azken xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El Diputado Foral del departamento de Hacienda y Finanzas.

Donostia, 2022ko abenduaren 5a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (7665)

I. ERANSKINA



I.B. ERANSKINA / ANEXO I.B

BEROTEGI EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGA
GASES FLUORADOS DE EFECTO INVERNADERO

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 16ko 517/2014/EB Erregelamenduaren I.
eranskina

Anexo I Reglamento (UE) 517/2014 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de abril

Kodea Código	Izen industrial Denominación industrial	Taric kodea Código Taric	ABP PCA
001	HFC – 23	2903 41 00 00	14.800,00
002	HFC – 32	2903 42 00 00	675,00
003	HFC – 41	2903 43 00 10	92,00
004	HFC - 125	2903 44 00 10	3.500,00
005	HFC - 134	2903 45 00 20	1.100,00
006	HFC - 134a	2903 45 00 10	1.430,00
007	HFC - 143	2903 44 00 30	353,00
008	HFC - 143a	2903 44 00 20	4.470,00
009	HFC – 152	2903 43 00 20	53,00
010	HFC – 152a	2903 43 00 30	124,00
011	HFC – 161	2903 49 90 10	12,00
012	HFC – 227ea	2903 46 00 10	3.220,00
013	HFC – 236cb	2903 46 00 20	1.340,00
014	HFC – 236ea	2903 46 00 30	1.370,00
015	HFC – 236fa	2903 46 00 40	9.810,00
016	HFC – 245ca	2903 47 00 10	693,00
017	HFC – 245fa	2903 47 00 20	1.030,00
018	HFC – 365mcf	2903 48 00 10	794,00
019	HFC – 43-10mee	2903 48 00 20	1.640,00
020	PFC-14 o Perfluorometano	2903 49 30 10	7.390,00
021	PFC-116 o Perfluoroetano	2903 49 30 20	12.200,00
022	PFC-218 o Perfluoropropano	2903 49 30 90	8.830,00
023	PFC-3-1-10 (R-31-10) o Perfluorobutano	2903 49 30 90	8.860,00
024	PFC-4-1-12 (R-41-12) o Perfluoropentano	2903 49 30 90	9.160,00
025	PFC-5-1-14 (R-51-14) o Perfluorohexano	2903 49 30 30	9.300,00
026	PFC-c-318 o Perfluorociclobutano	2903 89 80 60	10.300,00
027	Hexafluoruro de azufre	2812 90 00 90	22.800,00

BEROTEGI EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN NAHASTEAK
MEZCLAS GASES FLUORADOS DE EFECTO INVERNADERO

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 16ko 517/2014/EB Erregelamenduaren I.
eranskina

Anexo I Reglamento (UE) 517/2014 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de abril

<i>Kodea Código</i>	<i>Izen industrial Denominación industrial</i>	<i>Osaera (irailaren 27ko 552/2019 Errege Dekretua) Composición Real Decreto 552/2019, de 27 de septiembre</i>	<i>Taric kodea Código Taric</i>	<i>ABP PCA</i>
028	R503	R-23/13 (40,1/59,9)	3827 11 00 00	5.934,80
029	R504	R-32/115 (48,2/51,8)	3827 11 00 00	325,35
030	R507A	R-125/143a (50/50)	3827 61 00 10	3.985,00
031	R508A	R-23/116 (39/61)	3827 51 00 10	13.214,00
032	R508B	R-23/116 (46/54)	3827 51 00 20	13.396,00
033	R513A	R-134a/1234yf (44/56)	3827 68 00 90	629,20
034	R402A	R-125/290/22 (60/2/38)	3827 31 00 00	2.100,00
035	R402B	R-125/290/22 (38/2/60)	3827 31 00 00	1.330,00
036	R404A	R-125/143a/134a (44/52/4)	3827 63 00 15	3.921,60
037	R407A	R-32/125/134a (20/40/40)	3827 63 00 30	2.107,00
038	R407B	R-32/125/134a (10/70/20)	3827 62 00 40	2.803,50
039	R407C	R-32/125/134a (23/25/52)	3827 64 00 20	1.773,85
040	R407D	R-32/125/134a (15/15/70)	3827 64 00 29	1.627,25
041	R407E	R-32/125/134a (25/15/60)	3827 64 00 29	1.551,75
042	R407F	R-32/125/134a (30/30/40)	3827 64 00 21	1.824,50
043	R407H	R-32/125/134a (32,5/15,0/52,5)	3827 64 00 22	1.495,13
044	R408A	R-125/143a/22 (7/46/47)	3827 31 00 00	2.301,20
045	R410A	R-32/125 (50/50)	3827 63 00 20	2.087,50
046	R410B	R-32/125 (45/55)	3827 65 00 90	2.228,75
047	R(1)*	R-125/143a /290/22 (42/6/2/50)	3827 31 00 00	1.738,20
048	R416A	R-134a/124/600 (59,0/39,5/1,5)	3827 31 00 00	843,70
049	R417A	R-125/134a/600 (46,6/50,0/3,4)	3827 63 00 90	2.346,00
050	R417B	R-125/134a/600 (79,0/18,3/2,7)	3827 62 00 90	3.026,69
051	R417C	R-125/134a/600 (19,5/78,8/1,7)	3827 64 00 90	1.809,34
052	R119A	R-125/290/218 (86/5/9)	3827 59 00 00	3.804,70
053	R420A	R-134a/142b (88,0/12,0)	3827 31 00 00	1.258,40
054	R421A	R-125/134a (58,0/42,0)	3827 62 00 90	2.630,60
055	R421B	R-125/134a (85/15)	3827 62 00 90	3.189,50
056	R422A	R-125/134a/600a (85,1/11,5/3,4)	3827 62 00 90	3.142,95
057	R422B	R-125/134a/600a (55/42/3)	3827 62 00 90	2.525,60
058	R422C	R-125/134a/600a (82/15/3)	3827 62 00 90	3.084,50
059	R422D	R-125/134a/600a (65,1/31,5/3,4)	3827 62 00 50	2.728,95
060	R422E	R-125/134a/600a (58,0/39,3/2,7)	3827 62 00 90	2.591,99
061	R423A	R-134a/227ea (52,5/47,5)	3827 64 00 29	2.280,25

<i>Kodea Código</i>	<i>Izen industrial Denominación industrial</i>	<i>Osaera (irailaren 27ko 552/2019 Errege Dekretua) Composición Real Decreto 552/2019, de 27 de septiembre</i>	<i>Taric kodea Código Taric</i>	<i>ABP PCA</i>
062	R424A	R-125/134a/600a/600/601a (50,5/47,0/0,9/1,0/0,6)	3827 63 00 99	2.439,60
063	R425A	R-32/134a/227ea (18,5/69,5/12,0)	3827 64 00 90	1.505,12
064	R426A	R-125/134a/600/601a (5,1/93,0/1,3/0,6)	3827 64 00 90	1.508,40
065	R427	R-32/ R-125/R-143a /R-134a (4,99/7,51/2,57/84,93)	3827 64 00 90	1.625,91
066	R427A	R-32/125/143a/134a (15/25/10/50)	3827 64 00 90	2.138,25
067	R428A	R-125/143a/290/600a (77,5/20,0/0,6/1,9)	3827 62 00 90	3.606,50
068	R434A	R-125/143a/134a/600a (63,2/18,0/16,0/2,8)	3827 62 00 90	3.245,40
069	R437A	R-125/134.a/600/601 (19,5/78,5/1,4/0,6)	3827 64 00 90	1.805,05
070	R(1)*	R-125/218/134a (11/4/85)	3827 64 00 90	1.953,70
071	R438A	R-32/125/134a/600/601a (8,5/45,0/44,2/1,7/0,6)	3827 63 00 99	2.264,44
072	R453A	R-32/125/134a/227ea/600/601 (20,0/20,0/53,8/5,0/0,6/0,6)	3827 64 00 90	1.765,34
073	R442A	R-32/125/134a/152a/227a (31/31/30/3/5)	3827 64 00 90	1.887,97
074	R448A	R-32/125/1234yf/134a/1234ze(E) (26/26/20/21/7)	3827 65 00 20	1.385,80
075	R449A	R-32/125/1234yf/134a (24,3/24,7/25,3/25,7)	3827 65 00 21	1.396,04
076	R450A	R-134a/1234ze(E) (42/58)	3827 68 00 90	600,60
077	R452A	R-32/125/1234yf (11/59/30)	3827 68 00 90	2.139,25
078	R(1)*	R-134a/125/32/143a (84,93/7,51/4,99/2,57)	3827 64 00 90	1.625,91
079	R464A	R-32/125/1234ze(E)/227ea (27/27/40/6)	3827 65 00 29	1.320,45
080	R(1)*	R-744/32/125/134a/1234ze (E)/227ea (11/11/11/4/56/7)	3827 68 00 90	741,85
081	R(1)*	R-744/32/125/134a/1234ze(E)/227ea (10/17/19/7/44/3)	3827 68 00 90	976,45
082	R444B	R-32/152A/1234ze(E) (41,5/10/48,5)	3827 68 00 90	292,52
083	R446A	R-32/1234ze(E)/600 (68/29/3)	3827 68 00 90	459,00
084	R447A	R-32/125/1234ze (E) (68/3,5/28,5)	3827 68 00 90	581,50
085	R451B	R-1234yf/134a (88,8/11,2)	3827 68 00 90	160,16
086	R452B	R-32/125/1234yf (67,0/7,0/26,0)	3827 68 00 10	697,25
087	R454A	R-32/1234yf (35,0/65,0)	3827 68 00 90	236,25
088	R454B	R-32/1234yf (68,9/31,1)	3827 68 00 90	465,07
089	R512A	R-134a/152a (5/95)	3827 68 00 90	189,30
090	R413A	R-218/134a/600a (9/88/3)	3827 59 00 00	2.053,10
091	R419A	R-125/134a/E170 (77/19/4)	3827 62 00 60	2.966,70
092	R419B	R-125/134a/E170 (48,5/48,0/3,5)	3827 68 00 90	2.383,90
093	R439A	R-32/125/600a (50/47/3)	3827 65 00 90	1.982,50
094	R(1)*	R-125/134a/152a/E170 (67/15/15/3)	3827 63 00 99	2.578,10

Kodea Código	Izen industriala Denominación industrial	Osaera (irailaren 27ko 552/2019 Errege Dekretua) Composición Real Decreto 552/2019, de 27 de septiembre	Taric kodea Código Taric	ABP PCA
999	BESTE NAHASTE BATZUK OTRAS MEZCLAS			
*Izendapen sinboliko alfanumerikoa esleitzeko zain				
*Pendiente de asignar denominación simbólica alfanumérica				

II. ERANSKINA

II.A ERANSKINA

IZAKINEN KONTABILITATEA.

Urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikuluko hamaseigarren apartatuan xedatutakoaren arabera, zergadunek izakinen kontabilitatea eraman behar dute, bitarteko elektronikoak erabilia, eremu hauen berri emanez:

IZAKINEN KONTABILITATEA

Idazpen zenbakia (1)	Kontzeptua (2)	Gasaren identitatea (3)	Produktuaren, ekipoaren edo aparatuaren identitatea (4)	Data (5)	Kantitatea (6)	ABP (7)	Zerga arabidea (8)	Hartzailea edo hornitzailea (9)	Hartzailea edo hornitzailea (10)
----------------------------	-------------------	-------------------------------	--	-------------	-------------------	------------	--------------------------	--	---

Idazpen zenbakia (1): dagokion likidazio aldian korrelatiboa izan behar duen kontabilitate idazpenaren zenbakia; fabrikatzaileen edo biltegizainen kasuan, hasierako izakinei dagokiena izango da.

Kontzeptua (2): kontabilizatutako gertakariari dagokion kontzeptua, honako hauek bereiziz:

— Zergaren xede diren berotegi efektuko gas fluordunen hasierako izakinak likidazioaldiaren hasieran, gas fluordunen fabrikatzaileek edo biltegizainek biltegitratuak (1 zenbakiarekin identifikatuta).

— Zerga honen xede diren berotegi efektuko gas fluordunen fabrikazioa, inportazioa, Batasunaren barruko eskurapena eta bestelako eskurapen moduak, gas fluordunen fabrikatzaileek, Batasunaren barruko eskuratzaileek edo biltegizainek eginak, kasuan kasu (2 zenbakiarekin identifikatuta).

— Zergaren xede diren berotegi efektuko gas fluordun kontabilizatu eta biltegitratuen entregak edo eskura jartzeak, gas fluordunen fabrikatzaileek edo biltegizainek eginak (3 zenbakiarekin identifikatuta).

— Zergaren xede diren berotegi efektuko gas fluordun kontabilizatu eta biltegitratuen kontabilitateko gainerako bajak, gas fluordunen fabrikatzaileek edo biltegizainek eginak (4 zenbakiarekin identifikatuta).

Gasaren identitatea (3): zergaren xede diren berotegi efektuko gas fluordunak, I.B eranskinean jasotako taulen arabera kontabilizatuak, identifikatzeko kodea.

Taula horietan zergaren xede diren berotegi efektuko gas fluordunak identifikatzen dira, berotegi efektuko gas fluordunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 517/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean agertzen direnak, bai eta horiek dituzten nahasturak ere.

Produktuaren, ekipoaren edo aparatuaren identitatea (4): zergaren xede den berotegi efektuko gas fluordun kontabilizatua daukan produktua, ekipoa edo aparatua identifikatzeko kodea.

Eremu hau beteko da baldin eta zergaren xede diren berotegi efektuko gas fluordunak foru agindu honen II.B eranskinean zerrendatutako produktu, ekipo edo aparatuetan badaude.

Data (5): data, kontabilizatutako gertakariari dagokion eguna, hilabetea eta urtea adierazita.

Gas kantitatea (6): zergaren xede den berotegi efektuko gas fluordun kontabilizatuaren kantitatea, kilogramotan adierazia, hiru dezimalekin, goitik edo behetik biribilduta, laugarren zifra dezimala 5etik beherakoa den ala ez kontuan hartuta.

ABP (7): zergaren xede den berotegi efektuko gas fluordun kontabilizatuak atmosfera berotzeko duen potentziala, berotegi efektuko gas fluordunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 517/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean xedatutakoaren arabera zehaztua.

Atmosfera berotzeko potentziala bi dezimalekin adierazi behar da, goitik edo behetik biribilduta, hirugarren zifra dezimala 5etik beherakoa den ala ez kontuan hartuta.

Zerga araubidea (8): agindu honen II.C eranskinean adierazitakoaren arabera betetzeko.

Hartzailea edo hornitzailea (9): Eremu hau hornitzailearen izenarekin edo izen sozialarekin beteko da zergaren xede den berotegi efektuko gas fluordun kontabilizatua inportatzen denean, Batasunaren barruan eskuratzen denean edo bestelako eskurapenen xede denean (2. zenbakiarekin identifikatutako kontzeptua); aldiz, hartzailearen izenarekin edo izen sozialarekin beteko da kontabilizatutako gasa edo nahastura entregatzen edo eskura jartzen denean (3. zenbakiarekin identifikatutako kontzeptua).

Hartzailea edo hornitzailea (10): Eremu hau aurreko laukian aitortutako hornitzailearen edo hartzailearen IFZ, IFZ BEZ, AIZ jarriz bete behar da. GFJ kodea edukiz gero, hornitzailea edo hartzailea harekin identifikatu beharko da.

II.B ERANSKINA KONTABILITATEA, PRODUCTUAREN, EKIPOAREN EDO APARATUAREN IDENTITATEA

<i>Produktua, ekipoa edo aparatua</i>	<i>Kodea Código</i>	<i>Producto, equipo o aparato</i>
Etxeko hozkailuak eta izozkailuak.	a	Refrigeradores y congeladores domésticos.
Hozteko industria konpartimentuak eta merkataritza instalazioak.	b	Compartimientos industriales e instalaciones comerciales de refrigeración.
Izozteko industria konpartimentuak eta merkataritza instalazioak.	c	Compartimientos industriales e instalaciones comerciales de congelación.
Aire girotuko ekipo eramangarriak.	d	Equipos de aire acondicionado portátiles.
Eraikinetako aire girotuko sistemetakozko hozte ekipoak, bero ponpak eta hezetasuna kentzeko gailuak.	e	Equipos de refrigeración para sistemas de aire acondicionado de edificios, bombas de calor y deshumidificadores.
Turismo ibilgailuetarako aire girotua.	f	Aire acondicionado para vehículos de turismo.
Furgoneta, kamioi eta orga garraiatzaile-jasotzaileetarako aire girotua.	g	Aire acondicionado para furgonetas, camiones y carretillas transportadoras elevadoras.
Karabanetarako, autokarabanetarako eta ibilgailu berezietarako aire girotua.	h	Aire acondicionado para caravanas, auto caravanas y vehículos especiales.
Autobus edo autokarretarako aire girotua.	i	Aire acondicionado para autobuses o autocares.
250 mililitroko edo gutxiagoko edukiera duten aerosolak.	j	Aerosoles con capacidad total igual o inferior a 250 mililitros.

<i>Produktua, ekipoa edo aparatua</i>	<i>Kodea Código</i>	<i>Producto, equipo o aparato</i>
500 mililitroko edo gutxiagoko eta 250 mililitrotik gorako edukiera duten aerosolak.	k	Aerosoles con capacidad total igual o inferior a 500 mililitros y superior a 250 mililitros.
500 mililitrotik gorako eta 1.000 mililitroko edukiera edo hortik beherakoa duten aerosolak.	l	Aerosoles con capacidad total superior a 500 mililitros e igual o inferior 1.000 mililitros.
Ateak eta ate isolatuak.	m	Puertas y portones aislados.
Apar zigilatzailea.	n	Espuma sellante.
Isolamendurako poliestireno estructuretua.	ñ	Poliestireno extruido para aislamiento.
Hotz ganberetarako eta izozkailuetarako panelak.	o	Paneles para cámaras frigoríficas y congeladores.
Esnea hozteko tangak, zeharkako hozte sistemak.	p	Tanques de enfriamiento de leche, sistemas de refrigeración indirecta.
Esnea hozteko tankeak, zuzeneko espantsio sistema.	q	Tanques de enfriamiento de leche, sistema de expansión directa.
Bestelakoak.	r	Otros.

II.C ERANSKINA KONTABILITATEA. ZERGA ARAUBIDEA

<i>16/2013 Legearen 5. artikulua</i>		<i>Kodea/ Código</i>	<i>Artículo 5 Ley 16/2013</i>	
Zergapean.	Lotua eta ez-salbuetsia.	a	Sujeción.	Sujeto y no exento.
Ez zergapean: zazpi 1a.	ABP 150 edo txikiagoa.	b	No sujeción siete 1a.	PCA igual o inferior a 150.
Ez zergapean: zazpi 1b.	Fabrikatzaileak zergaren aplikazio lurraldetik kanpora egindako igorpena.	c	No sujeción siete 1b.	Envío fuera de territorio de aplicación del impuesto por fabricante.
Ez zergapean: zazpi 1c.	Biltegizainak zergaren aplikazio lurraldetik kanpora egindako igorpena.	d	No sujeción siete 1c.	Envío fuera de territorio de aplicación del impuesto por almacenista.
Salbuespena: zortzi 1a.	Eraldaketa kimikoa.	e	Exención ocho 1a.	Transformación química.
Salbuespena: zortzi 1b.	Suntsipena.	f	Exención ocho 1b.	Destrucción.
Salbuespena: zortzi 1c.	Ekipo militarak.	g	Exención ocho 1c.	Equipos militares.
Salbuespena: zortzi 1d.	Batasunaren barruko eskuratzailerak zergaren aplikazio lurraldetik kanpora egindako igorpena.	h	Exención ocho 1d.	Envío fuera de territorio de aplicación del impuesto por adquirente intracomunitario.
Salbuespena: zortzi 1d.	Nazioarteko nabigazioa.	i	Exención ocho 1d.	Navegación internacional.
Araubidea: bederatzi 4.	Sortzapen geroratua.	j	Régimen nueve 4.	Diferimiento en el devengo.
Salbuespena: hemeretzi.	Sistema elektrikoak.	k	Exención diecinueve.	Sistemas eléctricos.

16/2013 Legearen 5. artikulua		Kodea/ Código	Artículo 5 Ley 16/2013	
Salbuespena: hogei.	Farmaziako osagaiak.	I	Exención veinte.	Ingredientes farmacéuticos.